

# Ezpalak

JON TORNER

## Txirri, Mirri eta Txiribiton

pailazoen *Sudur gorria* diskoa (Elkar) kaleratu dute. "Sudur gorria janzen denean barruak askatzen dira eta hori guztiok egin beharko genuke noiz edo noiz, haurrek zein helduok", dio Jose Ignazio Ansorena *Mirrik*. Txirri, Mirri eta Txiribitonen hogeita hamabost urteko ibilbidea egin dute jada.

**Edorta Jimenez**ek eta Joxe Arregik *Jainkorik bai ala ez? Erlijioari buruz eztabaidan* (Elkar) elkarrizketa-liburua kaleratu dute. Erlijioaz duten ikuspegiak egin dute berba liburu horretan.

**Bernardo Atxaga** idazleak bloga ([www.atxaga.org/blog](http://www.atxaga.org/blog)) jarri du abian. Atxagak denboraldi luzea emango du Reno hirian (AEB), liburu bat idatzi nahi baitu han. Bertan izandako bizipenak, gogoetak eta poema zein narrazio laburak bilduko ditu, besteak beste, blog horretan.

**Deabruak Teilatueta**n taldeak abenduaren 29an ekingo dio *1973* disko kaleratu berriaren aurkezpen birari, Tolosako Bonbereanean. 1998an behin behineko erretiroa hartu zuten taldeko kideek, eta orain datoz bueltan, azken hilabeteotan sortu dituzten kanta berriekin. 2008ko urtarrilaren 12an Iruñean joko dute.

**Igor Otxoa** eta Harkaitz Martinez txalapartarien *Nomadak TX* filmak bigarren saria irabazi du Herbehereetako IDFA zinemaldian.

## Prensa-argazkilaritzari begira Gasteizko periskopiotik

Abenduaren 9a bitartean, hamar argazki erakusketa izango dira ikusgai Gasteizko beste hainbat aretotan. Guztiak *Periskopio: prentsa-argazkilaritzari begira* egitasmoaren parte dira. Orotara 60 herrialde-tako 76 argazkilarik egindako 650 irudi baino gehiago bildu dituzte erakusketa horietan. Aipatzekoak dira, adibidez, Elliot Erwit argazkilaritari eskainitako atzera begirakoa (Vital Fundazioa aretoan); Koro Cantabrana, Blanca Castillo, Asier Bastida eta Manuel Diaz de Rada euskal kazetarien irudiez osatutako erakusketa (Santa Maria katedralean); eta "glamourraren kontzientzia" erakusten duen Jaume de Laiguana bartzelonarraren *Beste begirada* izeneko bilduma (Ignacio Aldecoa kultur etxean). Azken erakusketa horretan ikus daiteke goiko irudia. Periskopio ekimenaren harira, World Press Photo erakusketa jasoko du Montehermoso jauregiak azaroaren 16tik aurrera. Informazio gehiago: [www.periscopiovitoria.com](http://www.periscopiovitoria.com).



## Bilbon kokatuko dute Arte Eszenikoen Goi Mailako Ikastegia

**EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK** 2008-2009 ikasturtean ireki nahi du Bilboko Alondegian kokatuko duten Arte Eszenikoen Goi Mailako Ikastegia. Bertan eskainiko dituzten lau ikasturteak gaintzen dituzten ikasleek "goi mailako titulu ofiziala" jasoko dute. Kokagunea erabakita dagoen arren, ikastegiak zein eduki jasoko dituen oraindik ez dute zehaztu. Horretarako profesionalen laguntza izango dute agintariek. "Ahal dugun pertsona guztiak aintzat hartzeko prestatu gaude; ekimen publiko honetan, ahalik eta jende gehien hurbiltzea interesatzen zaigu, kalitate handieneko eskaintza bermatu ahal izateko", adierazi du Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak.

Maidor Lopezek *Garan*: «Artistarentzako bide asko daude eta ni horiek guztietatik bizi naiz. Ziurrenik ez duzu jakingo nire azkeneko beka zein izan den baina, hala ere, nire azkeneko proiektua ezagutuko duzu. Hori dela-eta, nire burua ez dut bekei esker bizi den pertsonatzab».

Patzi Perurena idazlearen hitzak jaso ditu *Diario Vasco*: «Nik nire jakituriaren mugak aitortzen ditut, beste batzuek ez bezala. Baina egin ditudan aurkikuntza txiki horiek aitortzea eskatzen dut. Ez dut eskatzen eminentzia izendatzea, baina nik ehuneko bat aurkitu badut, ehuneko bat hori aitortzea eskatzen dut. Ez dakit zergatik ez dizkidaten aurkikuntza txiki horiek aitortzen, ez dakit zein unibertsitatekoa ez naizelako, edo euskaltzaina ez naizelako».

Patxo Telleriak *El País* egunkarian esana: «Bilboko kulturahornidura konparatzen baduzu inguruko hiriburuetako hornidurarekin, Bilbo lotsagarri geratzen da. Duela 25 urte, Bilbo zen teatroaren hiriburua Euskadin, baina handik hona, argi dago teatroaren erdigune grabitatorioa Donostia eta Gipuzkoa aldean kokatu dela».

Maria Mendizabal sopranoak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian: «Kantatzea gauza amateur edo osagarri bezala ulertu izan da beti hemen. Zaila da aurrera ateratzea Euskaditik alde egiten ez baduzu. (...) Baina ezin kexa naitekeela uste dut, batez ere orain momentu onean nagoelako eta gauzak ateratzen ari zaizkidalako. Gainera, gustatzen zaizun horretan lan egiteko aukera edukitzea beti da pozgarria».

## Ezagutzak arduratsuagoak eginen gaituen esperantzaz

Angel Amigo: *El año de todos los demonios*. Dokumentala. (Zurriola Group Entertainment).

Ernesto *Che* Guevara hil zuten urtemugaren –40. urteurrena– bezperan ikusi nuen ETAko buruzagi Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*-i buruzko dokumentala. Zinema-aretoaren sarbidean (Donostiako Bretxan) *Cheren* aipu hau irakurri nuen: “El conocimiento nos hace responsables” (“Ezagutzak arduratsu egiten gaitu”).

Premisa horrekin harrapatu ninduten filmearen irudiek. *Chek* bezala *Pertur*-ek ere ezagutzarako grina zuela gogoratu nuen. Ez dut bat ez bestea ezagutu noski, dakidana haietaz irakurria dakit. *Pertur*-en kasuan, herrikide izan nuen aldetik, baita hari buruz kontaktu didatena ere.

*Pertur*-en heriotzari –desagertzeari– buruzko bi hipotesi zabaldu dira. Lehenaren arabera kide zen erakundeko kideek desagerrarazia izan zatekeen. Bigarrena, Angel Amigok *El año de todos los demonios* filmean agertu den hipotesia da: Italiako neofaxistek hila, Espainiako eskuin muturrarekin edota talde parapolizialekin elkarlanean.

*Pertur* borrokakidearen –nire borrokalari izaera edo kategoria aitortzea erabaki dut– desagertzea lehen hipotesiaren zantzueta “onartua” nuen nik. Zenbait konbikzio nituen. Ziur egotea besterik da, jakina. Frogarik ez den bitartean, usteak ustel. Film honek ez dit bestela pentsatzeko uste sendoagorik eman, ordea.

Bestalde, hainbat irizpide jalgiazi zizkidan filmak: espainiarrentzat egina dago. Nire aburuz, ikuspegi kultural batetik, filma espainiarra da. Eta ondorioz, juzku hau egin nuen: herri honek arazo politikoa dauka Espainiarekin –eta Frantziarekin– baina kultur arazo itzela ere bai bere buruarekin. Ezagutza arazo itzela. Ez da berria.

Irudien artean, pankarta batean “Azkatasuna eta Anmestia” (sic) irakurri nuen. Garai bateko herri honen ezagutza maila erakutsi zidan: eskasa, apala. Herria-

rekiko errespetu guztia-  
rekin diot. Filmean elkar-  
rriketatuek zenbait  
gogoeta jalgiazi zizki-  
daten. Biren esanak  
ditut bereziki gogoan:  
Angel Ugarte jenerala-  
renak –**Francoren**



Eduardo Moreno Bergaretxe, *Pertur*

**jenerala**; letra beltza nirea da– eta Alain Etcheto frantses komisarioarenak (Baionakoa). Ugartek honela esan zuen: “Yo soy vasco. Ejerzo de vasco” (“Euskal herritarra naiz. Euskal herritar modura dihardut”). Etchetok berriz: “Yo soy vasco, pero no sabiniano” (“Euskaldun naiz, baina ez sabindarra”) –gutxi gorabehera, buruz ari naiz-eta–.

Ugarte **faxista** –letra beltza nire da– eta *vasco*, euskaldunak akabatzeke *vasco*, bistan da. Etchetok, berriz, ETAko hainbait buruzagi ezagutu ditu –ezagutza sendo daukat, frogarik ez; berriz ere– eta ETArekin 40 urteren ostean, euskalduntasun sabindarra baino ez du ezagutu.

Asimilazio hitzak inarrosi ninduen –beste behin ere–. Ainhoa Soraluze mezo-sopranoaren ahotsak lagundu zidan filma barneratzen. Kredituetan baina Soraluzek Ainhoa (sic) izena zuen. *Cheren* aipuekin gogoratu nintzen. Kanean jada, *Pertur* musikaria gogoratu nuen. Bi abesti euskaldunen letrak berritu nituen: “Gainerakotan gaude bertzen negurrian; *español* eginak gira joan den aspaldian!”. “Euskalduna naiz eta ez nago harro!”. Agian, egunen batean, ezagutzak arduratsuagoak eginen gaitu.

MIKEL ASURMENDI



## anduri landetxea

Ubera Auzoa 13  
20570 Bergara.

Tel.: 943 777 050 / 635 727 666

e-posta: andurilandetxea@yahoo.es